

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

37/2026 Mozioa, martxoaren 18koa, adinekoen egoitzetako itxarote-zerrendak gutxitzeko eta Arabako gizarte zerbitzuak indartzeko beharrari buruzkoa

Arabako Batzar Nagusiek, 2026ko martxoaren 18an egindako osoko bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

37/2026 Mozioa, martxoaren 18koa, adinekoen egoitzetako itxarote-zerrendak gutxitzeko eta Arabako gizarte zerbitzuak indartzeko beharrari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote bizkortu ditzala Salburuan egoitza berri bat eraikitzeko eta abian jartzen behar diren izapideak.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote eutsi diezaiola arlo soziosanitarioko erakundeekin plazak ituntzeko sistemari, egoitzetan dauden itxarote-zerrendak ahalik eta lasterren gutxitzeko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuan (SAD) ordu gehiago jar ditzala itxarote-zerrendan daudenentzat, 675/2023 Errege Dekretuan ezarritako irizpideen arabera.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Lanbiderekin eta lurraldeko udalekin lan egin dezala Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua emango duten langileak jasotzeko eta langile horiei prestakuntza emateko, hain zuzen ere zerbitzuak urte osoan funtzionatuko duela bermatze aldera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 18a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA